



■ ASTIGARRAGA

Julen Zuaznabar, epaiaren zain

Atzo bukatu zen 28 gazteren aurkako epaiketa. 12ri akusazioa erretiratu die fiskaltzak eta 16 epaiaren zain geratu dira. Tartean da Julen Zuaznabar astigartarra.

TORTURAK eta epaiketaren izaera politikoa salatuz bukatu zen atzo 28 gazteren aurkako epaiketa. Segiko kide izatea leporatuta epaitu dituzte Espainiako Auzitegi Nazionalan. Asteartean, fiskaltzak, akusazioa erretiratu zien 12ri eta 16 epaiaren zain geratu dira. Tartean da Julen Zuaznabar astigartarra. «Militantzia politikoagatik epaitu gaituzte eta torturapean ateratako deklarazioak besterik ez dauzkate», azaldu dio Kronikari. /3



«Urtekariak arrakasta du zuek, herritarrok egiten duzuelako»

AKTUALITATEA, historia, bitxikeriak, natura, gertaerak... 2014an gertatu diren gauza asko biltzen ditu urtekariak. Atzo aurkeztu zuten Udalean, eta urtero bezala, sekulako harrera izan zuen. Leporaino bete zen aretoa, ale bat

eskuratzeraz gerturatu ziren herritarrekin.

Luis Intxauspe alkateak eskerrak eman zien edizio honetan parte hartu zuten guztiei, eta baita ere, urtetik urtera gerturatzen diren herritarrei ere: «urteka-

riak arrakasta du zuek, herritarrok egiten duzuelako». Hamazazpi erreportaje ditu aurtengoak, eta Txuso Gomezek azaldu zuenez, datozen edizioetarako, atak zabalik dituzte, proposamenak jasotzeko. ||

■ HERNANI

Santo Tomas eta kontzertua, gaur

Santo Tomas Eguna antolatu du gaur San Joan Konpartsak. Plaza Berrin izango da 11:00etatik 14:30etara. Eta 18:30etan, erromeria. Gabonetako kontzertua ere izango da 20:00etan, Agustinetan. /II-IX

■ EREÑOTZU

Erronda, asteazkenean

Urtero bezala, Ereñotzun, etbez etbe ibiliko dira asteazkenean, Eguberriak kantuak abestuz. Eta Urte Zaharrean, krisiluak zerura bidaliko dituzte. /X

■ GOIZUETA

Olentzeroak, asteazkenean

Eskolako Olentzero 11:00etan aterako da eta presoan aldekoa 15:30ak aldera. Olentzero eta Mari Domingi 18:30etan helduko dira. Umeentzako tailerrak ere izanen dira Gabonetan. /X

■ ARANO

Olentzero, Miaxiria eta guzti

Aranon, etbez etbe aterako dira kantuan asteazkenean. Eta Olentzerorekin bateratsu, Miaxiria ere iritsiko da. /X

■ ASTIGARRAGA

Gabon kontzertua gaur, elizan

Gabonetako kontzertua izango da gaur Astigarragako elizan, 18:00etan. Hainbat ekintza izango dira Gabonetan eta oporrak tarteko, Udal eraikinak itxita egongo dira. /XI

GAUR KRONIKAN

Hernani /2

Plenoa, erremontea, laburrak

Astigarraga /3

Herri lasterketa, kirolak...

Goizueta /4

Arano /4

SUANCES (Cantabria) Urtarriletik Ekainera Gau bat 3* Hotelean gosaria barne + SPA	37 ⁹⁰⁰ €	LANZAROTE Urtarrilaren 5ean Bilbotik hegaldia + 5 gau 3* Hotelean pentzio erdian	409 ⁰⁰⁰ €
CORTIGUERA (Cantabria) Urtarriletik Ekainera 2 gau etxe rural batean gosaria barne	59 ⁹⁰⁰ €	FLORENCIA San Jose zubia, Martxoaren 19tik 22ra Bilbotik hegaldia + 3 gau 3* Hotelean, gosaria barne	432 ⁰⁰⁰ €
COFRE VIP 2 gau pentzio erdian, bikotea	149 ⁹⁰⁰ €	SALOU Aste Santuan, Apirilaren 8tik 12ra 6 gau 4* Hotelean pentzio osoan. 2 heldu + 2 ume	530 ⁰⁰⁰ €
PARIS- DISNEY Abenduaren 20tik 30era Donostiatik autobusa + 2 gau 3* Hotelean gosaria barne	219 ⁰⁰⁰ €	JAPON Urtarriletik Martxoan Midiatik hegaldia + 8 eguneko zirkuitua 4* Hotelean gosaria + bitxiak barne	1653 ⁰⁰⁰ €
ROMA Otsailaren 15etik 18ra Bilbotik hegaldia + 3 gau 4* Hotelean gosaria barne	299 ⁰⁰⁰ €		
BENIDORM Maiatzaren 7, 17 eta 27an Donostiatik autobusa + 10 gau 2* Hotelean pentzio osoan, edonak barne	351 ⁰⁰⁰ €		
LONDRES Otsailaren 19tik 22ra Bilbotik hegaldia + 3 gau 3* Hotelean gosaria barne	359 ⁰⁰⁰ €		
ALGARVE Martxoaren 31ra arte Bilbotik hegaldia + 7 gau 4* Hotelean, gosaria barne	377 ⁰⁰⁰ €		

Aukera gehiago
gure bulegoan eta
www.hernanbidaiak.es
www.bidabilia.com

HERNANI
BIDAIAK
Urbeta, 6
943 33 00 49

JARRAITU:

UDALA PLENOA

2015eko aurrekontua onartua, oposizioaren kontrako botoekin

Mozioak ere onartu ziren: presoen eskubide, merkatarien ordutegi erregularizazio eta gizarte larrialdietarako partidaren alde.

GOBERNU Taldearen aldeko botoekin, eta EAJ, H1! eta PSEren kontrako botoekin onartu ziren aurrekontuak osteguneko Plenoan.

Luis Intxauspe alkateak azaldu zituen «aurrekontuak osatzeko erabilitako irizpideak: hernaniarren egoera sozio-ekonomikoa; bizi-baldintzen lanketa; bizi-kalitatea eta osasuna; jasagarritasuna, mugikortasuna eta ingurumena; eta herritarrentzako zerbitzuak eta tratua».

Datorren larunbateko Kronikan argitaratuko da informazio osatua.

Igerilekua berrituko da

Onartutako aurrekontuan, kiroldegiko igerilekua berritzeko proiektua nabarmendu zuen Gobernu Taldeak. Beñat Amenabar zinegotziak azaldu zuen: «Foru Aldundiak dirulaguntza emango digu igerilekua berritzeko. Astean, 3.200

pertsona sartzen dira bertan, eta 28 urtetan ez da berritu. Proiektuak eskatu ditugu, eta zer, noiz eta nola egin erabakitzean, azalduko dugu».

Oposizioari erantzuna

EAJ, H1! eta PSE alderdiek aurrekontuak onartzearen kontra bozkatu zuten, baina ez zuten aurkeztutako emendakinen inguruko azalpenik eman. Hala ere, Gobernu Taldeak hainbat zuzenketa egin nahi izan zizkien, batetik, EAJ eta H1! alderdiek aurkeztutako emendakinari (osteguneko Kronikan argitaratua), eta bestetik, PSEk aurkeztutakoari (laster argitaratuko da).

Aitor Miner zinegotziak EAJ eta H1!k esandakoak gezuratu zituen: «partida soziala haunditu egin dugu, 2.750.000 eurotik 2.862.000ra». PSEeri, berriz, erantzun zion: «ez zarete fidatzen esandakoak egingo ditugula; 2013ko

proiektuan %87 baimendu, eta %80 exekutatu dira, eta 2014ko %80 exekutatuko da».

Mozioak onartuta

Hiru mozio ere onartu ziren: preso eta iheslarien senideek aurkeztutakoa, Gobernu Taldearen eta EAJren aldeko botoekin eta gainontzekoen abstentzioarekin; Berriak elkarteak merkatarien ordutegi eskubideak babesteko aurkeztutakoa H1!en abstentzioarekin eta gainontzekoen babesarekin; eta gizarte larrialdietarako dirulaguntza haunditzeko, H1!en abstentzioarekin eta gainontzekoen babesarekin.

Bestalde, Bic Gipuzkoa Berrilan sozietateko bazkide izateari uztea onartu zuen Gobernu Taldeak, oposizioaren abstentzioarekin, «garpenera ekonomikoa bultzatzeko ez baita beharrezkoa bazkide izatea».

ERREMONTA BINAKAKO TXAPELKETA

Ezkurratarren etxean bukatuko du Txapelak

Partidua Galarretan jokatuko da, 17:00etan hasita.

BINAKAKO txapelketa haundia izango da jokoan gaur Galarretan. Berezia izango da 44garren edizio hau, Ezkurra osaba-ilobak aurrez aurre izango baitira. Ezkurra II eta San Miguelek jokatuko dute finala, Ezkurra eta Ionen kontra. Partidua, 17:00etan.

Debutean, finalera

Jose txo Ezkurak aurten debutatuko du, eta finaleraino iritsi da. Gainontzeko hiruek badakite zer den binakako txapela janztea.

Bikote bakoitzak argi du zein taktika izan. Apustuak Ezkurra eta Ionen alde

aterako dira, txapelketa osoko joerari segita. Kotetok bi helburu izango ditu: Jose txo dominatzea aurreko koadroetan, eta Ion babestea atzean, San Migueli pelota kenduz. Bikote sendoa osatzen dute Ezkurra eta Ionek, eta irabazteko faboritoak dira.

ZINEA

Bi pelikula, bost sesiotan

Asteburuan zineaz gozatu nahi dutenek aukera ederra dute. *Fuego* pelikula jarriko dute gaur, 19:30 eta 22:30etan, bihar 19:30etan eta astelehenean 16:30etan. Publiko guztiarentzat *Las aventuras del pequeño fantasma* jarriko dute.

SAHARAREN ALDEKO EUSKAL KARABANA

Janaria biltzen, supermerkatuetan

Saharako errefuxiatu kanpamenduetarako janaria biltzen ariko dira gaur supermerkatuetan. Eskatu dituzte: konpresak, arroza, lentejak, pasta, olioak, azukrea, eta atuna edo sardinak oliotan.

PSE-EE

Festak zoriondu eta elkarrekin egoteko zita, Casa del Pueblon

Animatzen diren hernaniar guztiarentzat hitzordua jarri du PSE-EE alderdiak 12:00etan. Casa del Pueblon elkartuko dira, datozen festak zoriondu eta hamaiketako eder bat egiteko asmoz. Azaldu dute: «badakigu ez direla ospakizunetarako garairik onenak. Hala ere, beti da positiboa bizi dugun egoera pixka bat ahaztu, eta une atsegin bat pasatzea.

Iñaki Arriola, Sozialista Gipuzkoaren Idazkaria, bertan izango da.

GAZTETXEA

Laburmetrai rallya, gaur

Goizeko 10:00etan hasita, laburmetrai rallya antolatuko dute gaztetxean. Bertan erabakiko dira gaia eta baldintzak, eta partehartzaileek 19:00ak arte izango dute aurkeztuko aukera. Ondoren emanaldia izango da gaztetxean.

WATERPOLOA

Ate irekiak eta partidua, gaur

Zortzi urtetik gorako gazteek waterpolo ezagutu dezaten, ate irekien jardunaldia antolatu dute gaur, 12:30etatik 13:30etara. Ondoren, Euskadiko Kopako partidua jokatuko da: Hernani-WP Sestao.

ESKU PELOTA

Eskuzko txapelketa, pelota eskolan

Eguberrietako oporraldia aprobetxatu eta pelota eskolara etortzen diren umeek eskuzko txapelketa jokatuko dute. Buruz buru jokatuko da, eta hiru aste iraungo ditu. Finala urtarrilaren 3an jokatuko da. Asteburuko partidua: gaur 10:00etan eta 15:00etan; eta bihar 11:00etan. Bestalde, hamalau partidua jokatuko dituzte Hernaniko pelotariak. Horietako bi gaur, Hernanin: Xabier Apaolaza/Txulobi eta Joseba Garmendia/Gazteleku; 19:00etan, Kiroldegian.

ESKUBALOIA - ATE IREKIAK

Gabonetarako plana, bihar hasita

Hernaniko eskubaloi taldeak ate irekiak antolatu ditu Gabonetan, 09:30-11:30 ordutegian. Entrenamenduak eta teknifikazio saioa izango dira; aurrenekoak, 2001-2006 urte bitartean jaiotako neska-mutilentzat. Aurreneko saioa, ate irekietakoa, bihar da.

FUNERARIA
ORBEGOZO
ERRAUSKETAK

24 orduko tfnoa.
943 33 10 20

www.funerariaorbegozo.com



ORBEGOZO
FUNERARIA
TANATORIO · BEILATOKIA

- Zerbitzu partikularrak eta aseguro etxeeekin.
- Beilatokiak.
- Errausketak.
- Lekualdatzeak.
- Eskelak, koroak ...

Zentrala HERNANI
Latxunbe, 7

HERNANI · ANDOAIN · ASTIGARRAGA · ORIO · LASARTE · ERRENTERIA

URUMEAKO
Kronika
2014ko abenduaren 20a, larunbata



**ZORIONAK eta
URTE BERRI ON!**

HERNANI // Gabonak 2014

Txistorrarekin hasi eta Errege Roskoraino

Gabonetan, ekintza ugari izango dira Hernanin. Gaur bertan, Santo Tomas Eguna antolatu du San Joan Konpartsak, Plaza Berrin. Goiz partean izango da. Eta ondoren, 18:30etan, erromeria. Ttarlak kaleak girotuko ditu eguerdi partean eta 20:00etan, Gabonetako kontzertua emango dute Ozenkik eta Musika Bandak Agustinetan.

DATORREN urtera arte eskola agurtu zuten atzo ikasle eta irakasleek eta hasi dira dagoeneko Gabonak. Santo Tomas Eguna izango da bihar eta aurea hartuta, gaur antolatu du festa San Joan konpartsak. Nahi adina txistorra jateko aukera izango da Plaza Berrin, 11:00etatik 14:30etara. Pintxo, talo eta bokadiloak egingo dituzte eta txistorraz gain, gazta, hirugiharra eta txokolatea ere izango da aukeran. Eta ondoren, 18:30etan, erromeria antolatu dute Patxi eta konpania taldearekin.

San Joan Konpartsak bihar ere postua jarriko du Donostian. Gipuzkoa plazan ariko dira taloak saltzen. Eta Donostiako Santo Tomas ferian, baita ere, Zaporeak proiektuak presentzia izango du. Gipuzkoa plazan egongo dira. Bertan biltzen den dirua, Angel Olanar misiolari hernaniarrak Wukron zuzentzen duen Saint Mary eskolara bideratuko da.

Gabonetako kontzertua gaur, Agustinetan
Eguerdia partean, Ttarla dantza taldea kalejiran at-



Txistorra jateko aukera izango da gaur eta bihar.

rako da Plazatik. Kaleak girotuko dituzte eta iluntzeko 20:00etan, Ozenki abesbatzaren eta Musika Bandaren txanda izango da. Gabonetako kontzertua emango dute Agustinetan. Imanol Kamio eta Roberto Pacheco izango dira zuzendariak. Koroa bakarrik, banda bakarrik edota biak batera entzuteko aukera egongo da. 11 abesti eskainiko dituzte.

gabonetako promozioa !! EXISTENTZIAK BUKATU ARTE

>> larunbata arratsaldetan ere irekita: 17:00 - 19:30

ibai mendi
Nafar kalea 23 - 943 33 37 24 - Hernani

ETOR ZAITEZ IKUSTERA GURE MODA ARROPA SAIL BEREZIA, GIZON-EMAKUMEENTZAT!

www.ibaimendi.com

<p>TERNUA PLUMIFEROA GIZONA/ EMAKUMEA</p> <p>LEHEN: 160'00€ 99'95 €</p>	<p>trang world PLUMIFEROA EMAKUMEA</p> <p>LEHEN: 130'00€ 107'00 €</p>	<p>TERNUA GALZA ELASTIKOAK GIZONA / EMAKUMEA /</p> <p>LEHEN: 100'00€ 69'95 €</p>	
<p>TERNUA FORRO-POLARRA TXANOAREKIN</p> <p>LEHEN: 180'00€ 119'95 €</p> <p>TXANO GABE</p> <p>LEHEN: 170'00€ 109'95 €</p>	<p>ZAPATILA-BOTA GORE TEX</p> <p>LEHEN: 150'00€ 109'00 €</p> <p>LEHEN: 110'00€ 79'95 €</p> <p>LEHEN: 110'00€ 89'90 €</p> <p>LEHEN: 90'00€ 69'95 €</p>	<p>TERNUA FORRO-POLARRA EMAKUMEA</p> <p>LEHEN: 180'00€ 119'95 €</p>	<p>DARE 26 XIRA EMAKUMEA</p> <p>LEHEN: 129'00€ 89'90 €</p>



Urtero bezala, musika emanaldiak izango dira nagusi Gabon hauetan ere. Argazkian, atzoko emanaldia.

Txistorradak auzoetan, bihar ere

Hainbat auzo eta elkartek txistorradak antolatuko dituzte bihar. Lizeagan 12:00etatik 14:00etara izango da eta horrez gain, saskiaren zozketa eta Olentzero panpinaren lehiaketa egingo dute. Etxeberri auzoan, berriz, 11:30etatik aurrera egingo dute, auzoko hirugarren blokean. Portu auzoan ere ez da txistorrik faltako. 12:00etan jarri dute hitzordua Ibarrolaburu plazan. Gabonetako saskia ere zozketatuko dute. Eta Goiz Eguzkin, txistorra jateaz gain, udazkeneko karta eta herri jolas txapelketetako sariak banatuko dituzte eta 3 saski zozketatuko dituzte.

Kontzertu gehiago, bihar eta etzi

Eguberritako kontzertua eskainiko dute bihar Txistulari Bandak eta biolinjole bikoteak. Patxi Apezetxeak zuzenduta, 8 abesti joko dituzte

13:00etatik aurrera, Milagrosan.

Eta astelehenean, musika eskolako txistularien, Hernasax taldearen eta Dakapo abesbatzaren emanaldia izango da. 19:00etan izango da Milagrosan eta urte garaiko doinu osatu dute egitaraua: euskal bilantziko eta eguberri giroko doinuak. Tartean, beste herrialdeetakoak ere izango dira.

Errondak, Olentzero, Erregeak...

Asteazkenean iritsiko da Olentzero opari, goxoki eta muxuak banatzera eta egun osoan Gabon kantuekin kaleak girotzen ibiliko dira haur, gazte eta helduak. Hainbat erronda izango dira. Urte Zaharreko erronda ere ez da faltako urtea agurtzeko. Eta urte berriarekin batera, Errege Magoak iritsiko dira. Beste hainbat ekintza eta emanaldi ere izango dira Gabonetan; beraz, aspertzeko tarterik ez da izango. ●

EGITARAUA

- GAUR:**
11:00-14:30, Santo Tomas Eguna Plaza Berrin, San Joan Konpartsarekin. Bihar, Donostian egongo dira.
12:00, Ttaria dantza taldearen kalejira, plazatik hasita.
18:30-20:30, Erromeria Plaza Berrin (bestela, Atsegindegin).
20:00 Ozenki abesbatza eta Hernaniko Musika Banda, Agustinetan.
15:30, Gabonetako erronda, Biteritik. Bertso elkarte.
17:00, Gabon kantak, Agustinetan. Parrokiko abesbatza.
18:00, Olentzero eta Ttaria taldeko dantzariak kalean.
18:30, Gabon gaueko kale buelta Milagrosatik aterata. Kantuz abesbatza.
20:00, Gabon gaueko erronda. Musika Banda.
- BIHAR:**
10:00-11:30, Eskubaloia. Ate irekiak, kiroldegian.
11:00, Santo Tomas Eguna Goiz Eguzkin. Sari banaketak eta saskien zozketa.
11:30, Txistorrada Etxeberri. Auzokide Bizilagun Elkarte.
11:30 arte, Olentzero paninen lehiaketarako panpinak jaso. Ondoren, erakusketa eta sari banaketa. Gibelalde.
12:00-14:00, Santo Tomas Eguna. Gibelalde elkarte.
12:00, Txistorrada Portun, Ibarrolaburu plazan. Auzo elkartearen Gabonetako saskia zozketatuko da.
13:00, Gabonetako txistu kontzertua, Milagrosan.
16:00, Osiñaga auzoko mus txapelketa, Olaizolan.
15:30, Gabonetako erronda, Biteritik. Bertso elkarte.
17:00, Gabon kantak, Agustinetan. Parrokiko abesbatza.
18:00, Olentzero eta Ttaria taldeko dantzariak kalean.
18:30, Gabon gaueko kale buelta Milagrosatik aterata. Kantuz abesbatza.
20:00, Gabon gaueko erronda. Musika Banda.
- ABENDUAK 25:**
10:00, Eguberri eguneko alborada. Musika Eskolako txistulariak.
ABENDUAK 26:
18:00, Apaxi ipuin kontalaria. Gibelalde auzo elkarte.
21:30, Anboto tabernako gabonetako mus txapelketa.
ABENDUAK 27:
19:30, Bertso jaialdia Biterin.
ABENDUAK 28:
10:00-11:30, Eskubaloia. Ate irekiak, kiroldegian.
ABENDUAK 29:
16:30-18:30, Haurrentzako tailerrak arkupetan (6-11 urte).
ABENDUAK 30:
19:00, Fernando Amezetarra 250 urte bertso emanaldia Biterin.
ABENDUAK 31:
17:30, Urte Zaharreko erronda.
17:45, Wukroren aldeko San Silbestrea.
18:30, Ametsen Kriseiluak bota Zinkoeneatik edo Ereñotzutik. Gure Esku Dago.
URTARRILAK 2:
18:00, Haurrentzako zinea, Gibelalden (kojina eraman).
URTARRILAK 4:
10:00-11:30, Eskubaloia. Ate irekiak, kiroldegian.
URTARRILAK 5:
18:00, Errege kabalgata, Marielutsetik abiatuta.

Marikarmen
ileapaindegia

Urbieto kalea, 7 - 1ºB
20120 Hernani
943 55 20 81

gabonjai@marikarmen.com

Gabon jai zoriontsuak opa dizkizuegu!

LIZARRA
Automekanika

Eguberri on!!!

Koixean konponketa orokorrak
Engrasatzea, olio aldaketak...

Zibulaga auzoa, 61 - 3. pob.
20120 HERNANI

943 556 771

Gabon zoriontsua izan ezazue eta urte berri on!!!

URUMEAKO **KRONIKA**

dob **E**ra
BERRIEN EGARTEA

Iparra
sukaldeak

Ibaitza poligonoa, 7
Hernani - Goizko errepidea - 01 3410 Km2
20120 Hernani, Gipuzkoa.
Tel. 943 55 67 90
info@iparrasukaldeak.com
www.iparrasukaldeak.com

Auzo berrak eta sarrera berriak
KONFIGURAZIÓK GADE

SALDU OSTEO
Zerbitzua

BERRIEN EGINDAKO
Abitzak

ZORIONAK ETA URTE BERRI ON!

SUKALDEEN DISEINUA PRODUKTU AUKERA OSAGARRIAK

Xarmant

Ileapaindegia
Estetika Zentroa

Eguberri On!!!

Urbieto kalea 2 Tf. 943 55 50 08

IMANDL KAMIO
musika eskola

DOINU-ZALE

KARABEL ALIZOA, 4 - behea ezkerrean
943 33 12 33

Solfeara	Biolontxelo	Tronpeta
Pianoa		Trikitixa
Akordeola		Kitarra
Panderoa		Abesbatza
Bateria Modernoa		Armonia

943 33 12 33 - 637 85 79 62
Gabon zoriontsuak opa dizkizuegu. Eguberri On!

HERNANI // Berriak elkarte

«Gomendio pertsonalagoak egiten ditugu denda txikiek»

Gabonetako erosketak herrian bertan egitearen abantailak azpimarratu dituzte Berriak elkarteko hainbat merkatarik. Batzuk egin dituzte erosketa guztiak, baina askok azken momentura arte itxoiten dute. Hara hemen, hainbat aukera.

HERNANIARREN erosketa ohiturez hitz egin digute Berriak, Hernaniko Merkatarik eta Ostalarien elkarteko hainbat komertzio.

Plazan dagoen Marna dendako Josune Errazkinek dio gehienek azken momentura arte itxoiten dutela, Gabonetako erosketak egiteko: «Erregetarako ere asko mugitzen da jendea». Andre Kaleko Ilargi dendan ere, hala dio Marijo Sainzek: «azken momentura arte mugimendu gutxi izaten da». Antziolako Arrosak estetika zentroan, horixe bera nabari du Rosa Bolañosek: «jendeak azken momentuan egiten ditu erosketak, Erregetarako gehiago, baina baita Gabon gauean bertan ere».

Konfiantza eta gertutasuna

Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Dendarteane dendari txikien aldeko kanpaina jarri dute martxan: Ez zaitetz laranja erdiarekin konformatu.



Arrosak estetika zentroan, Rosa Bolañosek krema estutueak eta era guztietako tratamenduak dauka.



Ilargi dendan, Marijo Sainzek jertse, zapi, txaketa, blusa edota pitxiak saltzen ditu.

Azaldu dute saltoki batzuetan arrazoi ekonomikoekin tentatzen dituztela erosleak, baina saltoki txikietan, bihotza ere jartzen dutela.

Hernanin ere halaxe da. «Denda txikietan gomendio pertsonalagoak egiteko aukera daukagu; askotan, eroslea eta oparia jasoko dituen ezagutzen ditugu», dio Errazkinek. «Esklusiboa» dena ere eskaintzen dutela dio Sainzek, eta, gainera, «prezio oso onak daukagu». Bolañosek «konfiantza» gehitu du: «eroslea eta oparia jasoko dituen gustura geratzea nahi izaten dugu. Konfiantza daukagu eta edozer aldatzeko aukera ematen dugu; herrian bertan erosita, aukera haundiagoa da».

Edonoren poltsiko eta gustuetara egokituta

Dendari txikien ustez, azken bi urteak gogorak izan dira, baina badirudi hobetzera egiten hasi dela egoera, «lagun ezutuaren formularekin opari gutxiago egiten badira ere». Gustuak eta aurrekontua edozein izanda ere, Hernaniko dendetan bada zer aukeratu. ●



Marna dendan, Josune Errazkinek larruzko poltsen promozio berezia eskaintzen du.

mikel armendariz
proiektu eta instalazio elektrikoak

Zorionak eta urte berri on!

Tel. 649 846 422 - 20.120 HERNANI

Urumea
BURDINDEGI

Zorionak eta urte berri on!

Kale Nagusia, 42 - 943 551 327

gse
Asesoreak

Zorionak eta urte berri on!

Aholkularitza eta tramitazio zerbitzua

Gudarien plaza, 13
Telfnoa: 943 55 02 54
Faxa: 943 33 58 01
gse@gseasesores.net

Brintza
ZORIONAKI

Lan-Aholkularitza -
Fiskala -
Aseguruak Inbertsioak -
Zerbitzu Juridikoak -

www.brintza.com

Urbietan 15 - Hernani
Tel.: 943 331 267 - Faxa: 943 330 892

GARAYAR AUTOBYSAK

Zerbitzu diskrezionalak (ESKOLARRAK)

Eguberri on!

Autobus zerbitzua
Linea erregularrak

Hernani - Aiete - Donostia - Aiete - Hernani
Andoain - Urnieta - Hernani - Donostia - Hernani - Urnieta - Andoain

Jaurregi bailara 17 - Tel.: 943 556 658
Fax: 943 331 208 e-mail: mgarayar@facilnet.es 20120 Hernani (Gipuzkoa)

HATOR
AHOLKULARITZA

Fiskala, laborala eta Kontabilitatea.

Gure zerbitzuak euskaraz jasotzeko aukera duzu...

Gabon zoriontsuak opa dizkizuegu!

MAPFRE ASEGURUAK

Kardaberaz 60, Hernani
Tel: 943 55 43 12
hator@euskalnet.net

TTILIN & TOLON

BELAR DENDA

MASAJEAK DIETAK KONTSULTAK
TERAPIA NATURALAK MEDIKUNTZA ORTOMOLEKULARRA

Ondo pasa gabonetan!!

TXIRRITA, 10 943 55 56 94

HERNANI // Olentzero

Onen Aroa iragartzen, Olentzero

Azken jentila, neguko solstizioko ospakizunetako pertsonaia, aro berri eta onaren iragarlea... Nor ote zen Olentzero?

EUSKAL mitologiako kondaira baten arabera, Olentzero da Euskal Herriko azken jentila; euskal paganismoaren bukaeraren eta kristautasunaren etorreraren artean kokatzen den pertsonaia.

Kondaira horrek esaten du jentilek, euskal herritar paganoek, argi arraro bat ikusi zutela zeruan, gerturatzen ari zena. Ez zekiten zer zen, eta jentil zaharrenarengana jo zuten, galdezka. Hark eman zien erantzuna: Kixmi (*Jesus; jentilen hizkuntzan, tximu*) jaio da! Euskal arrazaren amaiera da! Ondoren, bere burua amildegitik behera botatzeko eskatu omen zuen. Gainontzeko jentilak, berriz, beldurtuta, lurrazpian gorde

ziren, harri pilo baten azpian, eta horrela sortu ziren Nafarroa eta Gipuzkoa arteko mugetan ezagunak diren jentilarriak. Baina, kondairaren arabera, izan zen jentil bat kristautasunera bihurtu, eta harrezkero, Kixmiren etorreraren berri ematen duena: Olentzero, hain zuzen ere.

Aro berriaren iragarle

Kondairaz gain, hainbat etnologo Olentzero hitzaren nondik norakoak biltzen saiatu dira. Horrela, Lopez Martinez de Isastik, XVII. mendean, eta Azkuek, XXean, azaldu zuten Olentzero hitzak Onen Aro esan nahi duela. Izan ere, hitzak aldaera asko ditu: Olentzero, Onentzaro, Orentzaro...

Azken batean, Olentzero kirstautasunaren etorreraren iragarle edota opariak ekartzen dituen pertsonaia bihurtu da, baina, oinarrian neguko solstizioko pertsonaia paganoa zen, urte zaharraren amaiera eta eguzki berriaren etorrera iragartzen zituena. ●



Olentzero, Hernaniko kaleetan barrena.

urteberri on!!

72ZEN KILOMETROA
943 24 71 41 - Mendiak & Etorreraren etorrerak

URBERDI

mertzeria
lentzeria
hariak
artileak

Playtex - Avet - Dim
Stop artileak

EGUBERRI ON!

Kale Nagusia, 51 - 943 551 322

Mahuka

-%20
KAMARRETAN

Kardaberaz 28 - behea
GABON ZORIONTSUAK OPA DIZKIZUEGU!

bilinbolo

-%30
ARTIKULU GUZTIETAN

- Desigual
- Levi's
- IKKS
- ...

Haurrentzako jantziak

Antziola kalea, 5 - HERNANI -
943 243 527

Eguberri on!!

Ilargi

ZORIONAK ETA
URTE BERRI ON

kardaberaz, 7 943 553 465

EMAKUME,
GIZON
ETA HALIRRAK

CAZADOS
CANETAKIAK

IRIGOYEN

ELKANO, 4
TEL. 943 55 08 31
HERNANI
EGUBERRI ON!!

Eukene
Jantzienda

Jai zoriontsuak
opa
dizkizuegu!

Nafar kalea, 14 - Tel : 943 332 199

aguss
lentzeria

nagusia, 38 943 33 41 48

apaindura
OIHALA
hogar

Zorionak eta
Eguberri On!!

Elkano, 11
Tel. 943 55 64 87 HERNANI

URRATS

JAI ZORIONTSUAK OPA DIZKIZUEGU!

ERREGA EGUNA PASA ARTE,
LARUNBAT ARRATSALDETAN ERE ZABALIK

Iturriaga, 3 - 943 556 564

HERNANI // Maria Jesus Iturbide Alkain
Rioja taberna

«Konpota ez da sekula falta, gurean»

Sukaldean ohituta dago Maria Jesus Iturbide; 46 urte daramazki Rioja tabernan lanean. «Tabernari pribilegiatua naiz», dio. Baina etxean ere, majo egiten du lan, bereizki, Gabonetan.

GABONETAN jan-edanik ez da falta izaten. Ederki daki hori Maria Jesus Iturbidek. «Urtero pentsatzen dut: *aurten ez dut ezer berezirik egingo!* Baina azkenean, beti egiten dut zerbait! Eta beti, jango duguna baino gehiago!»

Etxean eta Rioja tabernan aritzen da sukaldean lanean, denetatik prestatzen.

Fritoak eta konpota, ezin falta

Gabonetan falta ezin diren jakiak izaten dira Maria Jesus Iturbideren etxean. «Ez dut beti errepikatzen, baina normalean beti izaten da urdaiazpiko pixka bat edo nik egindako fritoak. Askok gustatzen zaizkit, eta nik egiten ditudan... Txipiroiak tintan ere askotan izaten ditugu, eta haragi pixka bat; txuleta edo solomilloa. Eta postrean, betiko konpota! Konpota ez da sekula falta gurean! Amak egiten zuen, eta amonak ere bai. Bestalde, turroiak ere beti izaten dira. Gozozalea naiz, eta gozoa izaten dugu, lehertu arte!».

Erosketa dezente egin behar izaten ditu, 16-17 kide inguru biltzen baitira, adibidez, Eguberritako bazkaritarako. «Urte guztian egiten ditut nik erosketak Hernaniko dendetan; bai etxerako eta baita tabernarako ere. Gabonetan ere bai, noski, eta mugimendu haundiagoa nabaritzen da!».

«Garai batean Gabonetan puruak ematen genizkien gizonei; orain luntxa jartzen dugu mundu guztiarentzako».

Ezinbesteko osagaia: familia

Gabonetan falta ezin den beste osagaia familia bera izaten da, eta ez tripa betetzeko orduan bakarrik. «Sukaldean ni aritzen naiz, baina beti laguntzarekin: ahizpak, errainak eta koinatak asko laguntzen didate, eta tabernan semeek eta bilobek ere bai. Konpleto!».

Gabonak familia giroan ospatzea garrantzitsua da Maria Jesus Iturbiderentzat, eta emozionatu egiten da falta direnak gogoratzean. «ahizpa, semeak, koinatak, bilobak... elkartzen gara. Baina asko gogoratzen naiz hemen ez daudenekin: senarra, ama... Kasu batzuetan ez dago erremediorik, baina ea iloba, Gorka Loran, azkar etortzen den etxera. Hark beti esaten digu guk ondo pasatzeko, gozatzeko elkarrekin, eta saiatzen gara. Disfrutatzekeo dira egun hauek, baina baita urte osoa ere».

Etxean eta tabernan, familia giroan

Rioja tabernan ere lanean aritzen da Maria Jesus Iturbide, eta Gabonetan, modu berezian.

«Nik beti esan dut tabernari pribilegiatua izan naizela. Beti dago jendea, beti dauzkagu bezeroak, eta eskertzekoa da. Gainera, gauza on asko eman dizkit. Ez dut uste ezer egin dudarik merezi izateko, baina Kaxkoko alkate izendatu ninduten, txotx irekieran izan naiz, Korrikako



Maria Jesus, Rioja tabernako sukaldean, jo eta su.

testigua eraman nuen...». Hori guztia eskertzeko luntxa ematen dute Rioja tabernan, Gabon gauean eta Urte Zahar egunean.

«Garai batean gizonak izaten ziren gehienbat tabernetan. Orduan, Gabonetan puruak oparitzen hasi ginen. Baina pixkanaka emakumeak ere etortzen hasi ziren, eta esaten zuten: *eta gu zer?* Senarra galletak jartzen hasi zen orduan. Baina pixkanaka gehiagora joan zen, eta gaur egun denetik jartzen dugu, 24an eta 31n, 18:30etatik aurrera; hasi langostinoetatik eta pikuetaraino. Horrelakoetan mundu guztia etortzen da, eta lan asko egiten dut. Baina merezi du, eta gustora egiten dut, pozik. 31n laxo gorri bat ere oparitzen dugu, denak zoriontsu izan daitezen!».

BIKAIN
OKINDEGI TX GOZOTEGI

Eguneroko ogia beti bikain **Urte berri on!**

Elkano 12 - Tel.: 943 55 31 42
Eziago poligonoa - Tel.: 943 55 00 89 20120 Hernani

Jitaraga
HERNANI (Gozotegi)

Gabon jai zoriontsuak opa dizkizuegu

ADARRAGA
Konfitegia
Pasteldegia

Urbietza Etorbidea 7
☎ 943 55 09 10

IRRIGOENA OKINDEGIA
EGUNEROKO OGI BERDA

sulabe
ogirik beroena
www.sulabe.com

ZORIONAK ETA URTE BERRI ON!

Lizeaga I (Portiaz karp) tel: 943 33 17 25
Hernani

Panificadora Hernani S.L.
Tel: 943 55 49 54

GABON JAI ZORIONTSUAK OPA DIZKIZUEGU

DORRONSORO
Ogi egia berria
beti zure eskura

Zorionak eta urte berri on!

Drain bi tokitan aurkituko gaituzur:
⇒ Lizeaga 4an
Ogia eta bolleteria aukeran.
Ordutegia 07:15-14:00/17:00-21:00

⇒ Akarregi poligonoan, obradore nagusia, denda eta kafetegia.
Ordutegia: 05:30-13:30/16:00-19:30

PEÑA
OKINDEGIA - JANARIDENDA

**JAI ZORIONTSUAK
OPA DIZKIZUEGU**

Kale nagusia, 19 - Tel.: 943 55 23 98

ANTZIOLA, 3
Tel. 943 55 17 91
HERNANI

ondo pasa gabonetan!

ANTZIOLA
OKINDEGIA

HERNANI // Orobio-Colonia familia

«Buñueloak eta natillak egiten ditugu, baina gaziak!»

Gabonak asko gustatzen zaizkie Orobio-Colonia familiako kideei. Hilabete bada jaiotza eta pinua prestatu zituztela! Hala ere, onartzen dute Kolonbian eta hemen gauzak desberdinak direla.



Orobio-Colonia familiak aspaldi prestatu zituen jaiotza eta pinua, Gabonak ospatzeko.

KOLONBIATIK etorri ziren, orain 7 urte inguru, Orobio-Coloniatarrak. Yamileth etorri zen aurrena, eta Gorka, semea, berehala, 7 urte zituela (13 ditu orain). Segidan etorri zen Andres Felipe Orobio, Yamilethen senarra. Santi Orobio, berriz, Hernanin jaio zen, duela 6 urte.

Urte batzuk badaramazkite Hernanin, eta bertako ohitura batzuk hartu dituztela onartzen dute. Hala ere, sustriak ez dituzte ahazten. Gabonetako menuan ere nabari da hori!

Buñuelo, natilla eta brevak, Gabonetako izarrak

Kolonbian, hemen bezalaxe, jan-edana soberan izaten da egun hauetan. Baina jaki horiek desberdinak izaten dira.

«Buñueloak eta natillak egiten ditugu. Plater tipikoak dira. Baita brevak ere, mahaspasen estilokoak. Gabonetan ohitura dago. Baina buñuelo eta natillak ez dira hemengoak bezalakoak, gaziak dira!».

Osagaietan dago sekretua. «Arto-irina, Kolonbiako kostako gazta eta esnearekin egiten ditugu buñueloak. Natillak, berriz, Kolonbiako irin berezi batekin, panelarekin (azukrearen antzekoa) eta azukre-esnearekin. Ez dira likidoak izaten; gelatina moduan gelditzen dira. Ez gara oso postre zaleak. Kolonbian pikatzeko jartzen ditugu jaki horiek, beste askorekin batean. Baina, egia esan, hemen postretarako plater moduan jartzen hasi gara!».

«Kolonbiako fruten falta sumatzen dugu: mangoa, arbolako tomatea, guanabana, curuba, luloa...»

«Bertako estiloa pegatu zaigu, pixka bat»

Hain zuzen, ohitura batzuk aldatzen hasiak direla onartzen dute. Kolonbian Eguberri Eguna, Urte Zahar gaua eta Errege Eguna ospatzen dituzte, familia eta lagunekin bazkari eta afaritarako bilduta. Hemen ere, gauza bera egiten dute, batzuetan etxeok bakarrik, eta besteetan Kolonbiako eta Peruko lagun batzuekin bilduta. Baina menua osatzean, aldaketa txiki batzuk egiten dituzte.

«Bertako estiloa pegatu zaigu pixka bat. Horregatik, hasieran pikatzeko jakiak jartzen ditugu orain: urdaiazpikoa, pateaa... Baina, gero, normalean, haragi-pastela egiten dugu, labean, arroz pixka batekin lagunduta, Kolonbian bezala. Peruko lagunekin gaudenean, berriz, bertako jakiren bat jartzen saiatzen gara. Marisko zaleagoak dira han».

«Giroa osoa desberdina da»

Osagaiak bilatzeko ez dute arazorik izaten. Gaur egun, ia edozein denda eta supermerkatutan aurkitzen dituzte Kolonbiako produktuak. Baina familia osoak sumatzen du gauza baten falta; aho batez diote: «Kolonbiako frutak, zukuetarako! Hemen ez daude horrelakoak: mangoa, arbolako tomatea, guanabana, curuba, luloa...».

Familia da faltan sumatzen dena, baita ere. «Aurreneko urteak gogorragoak izaten dira. Gero, ohitu egiten zara». Baina aurten oso pozik daude, amona, Fabiola Jurado etorri baitzaie, Andres Felipe Orobioen ama. Gauzak horrela, giroa goxatzea besterik ez dute falta. «Hango giroa desberdina da, bizilagunekin gehiago konpartitzen da, hemen baino».



Bi urte beteko ditugu elkarrekin. Estorrik orko gustioi!!! Zorionak eta Urte Berrion!

PINEDA
HARATEGIA
Eguberri on!
Kardaberaz Kalea, 32 - HERNANI
943 55 16 43

Eguberri On!
ITXASPE
Arrandegia
Antziola 5
Tel.: 943 330 365
Mobila: 653 74 10 97
20120 Hernani

HARATEGI - URDAITEGI
INAKI MENDIZABAL
ZORIONAK ETA URTE BERRI ON!
Bertako txer horagian, idj duitefelan eta erretzeko kostilan espezialistak
JUAN MAÑE Y FLAQUER PLAZA 6
BARRIO LA FLORIDA 48333 122

AMAIARRANDEGIA
FRESKO ETA IZOZTUAK
Zorionak eta urte berri on!
Kardaberaz 34
Tel.: 943 55 07 52
943 55 22 11
20120 Hernani

MARISCOS HERNANI
609 67 43 44
943 55 51 56
Mariskoan espezialistak
Jai zoriontsuak izan!
KALE NAGUSIA, 20
20120 HERNANI
GIPUZKOA

HERNANI // Gabonetako loteria

Milioitik gora euro loteria, Hernanin

SELAE, Estatuko Loteria eta Apostuetarako Sozietateak emandako datuen arabera, aurreko urtean 1.170.440 euro saldu ziren Hernanin, Gabonetako loterian. Aurten, 1.356.020 euro arteko loteria eskatu dute herriko administrazioek.

ZORTE kontua izaten dela, baina zortea izateko, jokatu egin behar. Hernanin, dudarik ez da, jokatu egiten da. Bai, behinik behin, Gabonetako loterian. Aurreko urtean 1.170.440 euro arteko loteria saldu zen herrian; hau da, 58.522 dezimo saldu ziren.

Pertsonako 4 dezimo

Iazko datuak kontuan hartuta, Hernaniko admi-

Lehengo urtean 58.522 dezimo saldu ziren Hernanin; aurten, herriko administrazioek eskatutako guztia salduz gero, 67.801 dezimo salduko dira.

nistrazioetan 1.170.440 euro arteko Gabonetako loteria saldu zen. Horrek esan nahi du (18 urtetik gorako biztanle kopurua kontuan hartuta), pertsona bakoitzak 77 euro eta erdiko gastua egin zuela; ia 4 dezimo erosi zituen bakoitzak.

Aurten, dezimo gehiago eskatu dituzte herriko administrazioek. SELAEk emandako datuen arabera, 1.356.020 euro artekoak, hain zuzen ere; 67.801 dezimo, beraz. Oraindik ezin jakin zenbat saldu den, baina guztia salduz gero, pertsona bakoitzak ia 90 euroko gastua egingo du; 4 dezimo eta erdi erosi ditu bakoitzak.

Jokatu eta saria jaso

Saria jasotzeko esperantzarekin jokatzen da normalean, eta Hernanin izan da saririk, orain arte. Nahiz eta Gabonetako loteria administrazioen bidez eskuratu, asko herriko talde, komertzio eta elkarteek saltzen dute, bai dezimoka eta baita partizipazioka ere. Eta elkarte horietako askok banatu izan dute diru pixka bat erosleentzatean.



Gabonetako loteria dezente saltzen da Hernanin.

2013an Xalaparta eta Kaleratzeak Stop elkarteetako loteria erosi zutenek jaso zuten saritxoa, eta Pausoka elkartearen loteria erosi zutenek, berriz, sari potoloagoa; dezimoko, 200 euro.

Orain bi urte, berriz, Ozenki abesbatzak, Errugbi elkarteak, CD Hernani klubak eta Dobera Euskara Elkarteak banatu zuten dirua. Eta 2011n, Ozenki abesbatzak eta Atletismo elkarteak.

Aurten ere, jokatutakotik zer edo zer herrian geldituko delakoan, zorte on! ●

HERNANI // Ukerdi mertzeria

Esanahiz betetako opariak, norberak eginak

Puntua edo gantxilloa egiteak erlajatu eta autoestima igotzen laguntzen omen du. Eta zer hobea Gabonetan norberak egindako detaileren bat oparitzea baino?

NEGUA eta hotza iristearekin batera, puntua edo gantxilloa egiteari ekiten diote askok. Eta azken urteetan, gazteak ere gero eta gehiago dira animatu direnak. Modan dagoela esan liteke. «Orain, adin desberdinetako jende gehiago ibiltzen da. Lehen, adineko jendea izaten zen batez ere, eta orain gazteak eta jubilatutako berriak ere asko dira», dio Maria Angeles Marzal Ukerdi mertzeriako nagusiak.

Eta Gabonei begira, ideia polita izan liteke norberak egindako zerbait oparitzea, ezta? Halaxe azaldu du Marzalek: «Norberak bere eskuekin egindako zerbait oparitzeak beste balio bat du, beste esanahi bat. Noreberarentzako ere oso positiboa da, horrelako zerbait egiteko gai dela ikustea. Eta gero eta gehiago dira horrelako opariak bultzatzen dituztenak. Adibidez, lagun ezkutua egiterakoan eta zenbait lagun taldetan ere bai».

Adinaren arabera, lan desberdinak

Ukerdi mertzerian artile aukera zabala dute eta beraien bezeroek denetarik egiten dutela azaldu du Marzalek: «Hasi berriek, adibidez, gauza errazak egiten dituzte: bufanda edo lepokoak, txapelak, poltsak... Eta gero, bizi guztia josten daramakitenek denetarik egiten dute: umeentzako arropa, helduentzako jertseak, pontxoak, mantak... Eta orain, Santo Tomas datorrela eta, tokillak egiten ari dira asko».



Ukerdi mertzerian artile aukera ederra dago.

Adin bakoitzak helburu desberdina duela nabarmendu du Marzalek eta egiten dituzten lanak ere horren arabera izaten omen dira: «Adinekoek denbora pasa moduan egiten dute, entretenimendurako. Gazte eta jubilatutako berriak, berriz, gauza berri bat ikasteko gogoz hasten dira. Eta gazteek artile potolo xamarra nahi izaten dute, 7-12 orratzekoak, ahal den azkarren bukatzeko eta segituan janzteko. Adinekoek, berriz, hari fina nahi izaten dute. Batzuek beste, 3-4 tamainako artileak eskatzen dituzte».

Artile koloreari dagokionean ere, fantasiakoak eta lisoak dituzte Ukerdin. Fantasiakoak garestixeagoak dira, baina gazteei gehien gustatzen zaizkienak. Lisoak, berriz, adinekoentzat izaten dira, eta umeen arropak egiteko, batez ere.

BOST PUNTU MOTA

● **Bobo:** Punturik errazena. Buelta guztieta-ko puntu guztiak puntu zuzena erabilita lortzen da.



● **Jertsea:** Buelta bat puntu zuzenarekin egin eta hurrengo buelta alderantziko puntua erabilita. Horrela txandakatu lan osoan. Alderantziz ere hasi liteke.

● **Canale edo elastikoa:** Puntu zuzena eta alderantzikoa txandaka buelta berdinean (1x1, 2x2, 3x3...). Eta hurrengo buelta guztieta, puntua datorren bezala landu: zuzenak zuzen, eta alderantzikoak alderantziz. Elastikoa egiteko, errazena, puntu bikoitiekien lan egitea da, buelta bakoitza berdin hasi beharko baita.



● **Arroza:** Puntu zuzena eta alderantzikoa txandaka, buelta berdinean eta lan osoan. Hurrengo buelta guztieta, puntua datorren kontrara landu behar da. Puntu bakoitiekien egin ez gero, beti puntu zuzenarekin hasi behar da buelta.

● **Garia:** Lehenengo bueltan, puntu zuzena eta alderantzikoa txandaka. Bigarren bueltan, berdin, hau da, puntuak datozen bezala landu. Hirugarren bueltan, berriz, kontrara: alderantzikoa eta zuzena txandaka. Eta laugarren bueltan, berdin, puntuak datozen bezala landu. Lau ilara horiek errepikatu behar dira lan osoan.

«Aholkuak ematen dizkiet»

Hainbat mertzeria eta artile denda puntua edo gantxilloa egiteko ikastaroak eskaintzen hasi dira. Ukerdin ez dutela ikastarorik eskaintzen azaldu du Marzalek, baina aholkuak emateko eta laguntzeko prest izaten da beti. Eta aholku bidetik jarraituz, hasi berri bati zer gomendatuko liokeen galdetuta, halaxe erantzun du: «Lepoko itxi bat egiteko esango nioke. Buelta batekoa, edo doblea, artile potolo xamar batekin. Ekonomikoa da, artile batekin buelta bateko lepoko bat egin baitaiteke, eta birekin, doblea. Xamura da eta oso azkar egin daiteke».

OINDI
taberna
ONDO PASA GABONETAN!
Nagusia, 25
Tel.: 943 55 75 09

Kardaberaz kalea, 4 - 20120 HERNANI
943 330 414
ETXERA

TRIPA BETE NAHI?
taberna tripointzi
menusak, pintxoak, raxoak, entsaladak, plater konbinatuak...
ondo pasa gabonetan!
Kardaberaz kalea, 11 - HERNANI - 946 535 724

TXILIRITA 35 TABERNA
Eguberri On!
Kardaberaz kalea, 11 - HERNANI - 946 535 724

Arrobi
ondo pasa gabon jaiak!
- KAXUELAK
- OGITARTEKOAK
- PLATER KONBINATUAK
Santa Barbara auzoa, 87
943 33 72 11 / 629 991 476
IKUSI GURE LOGELAK
www.arrobiostatua.com

EREÑOTZU // Gabonak



Asteazkenean, Gabonetako kontzertua izan zen. Bideoa eta argazki gehiago, interneten.

Erronda Ereñotzun, etxez etxe

13:30-14:00ak aldera aterako dira. Bestalde, 31n kriseiluak bidaliko dituzte zerura, 18:30etan.

BESTE hainbat herri eta auzotan bezala, erronda egingo dute Ereñotzun, asteazkenean. Etxez etxe ibiliko dira Eguberritako kantuak abestuz. Eskolako umeek hartuko dute parte, urtero bezala. Arratsaldeko 13:30-14:00ak aldera abiatuko dira.

Joan den asteazkenean, berriz, Gabonetako kontzertua eskaini zuten eskolako umeek, Doinu Zale musika eskolako ikasleek eta Ozenki abesbatzako kideek. Bideo eta argazkiak interneten.

Gure Esku Dagoren kriseiluak, Irrintzin

Jakinarazi dutenez, Hernanin bezala, Ereñotzun ere kriseiluak bidaliko dituzte zerura, abenduaren 31n (18:30). Gure Esku Dagok bultzatutako ekimena da. Helburua da hurrengo urteari desioak elkarrekin eskatzea. Parte hartu nahi dutenek izena eman behar dute Irrintzi tabernan. Kriseiluaren prezioa, 2 euro. ●

IRUBIDE JATETXEA

Zorionak eta urte berri on!

Epele auzoa, 7
943 552 480 - 447 208 702

GOIZUETA // Gabonak

Presoak ere gogoan izanen dituzte Goizuetan, Olentzeroren etorreran

Eskolako Olentzero 11:00etan aterako da eta presoan aldekoa 15:30ak aldera. Olentzero eta Mari Domingi 18:30etan helduko dira.

AURTEN ere, eskolako neska-mutilen Olentzeroa aterako da Goizuetako kaleak girotzera. Asteazkenean, 11:00etan izanen da hori. Eta aldeaz aurretik, eskerrak eman nahi dizkiete ikasbidaiarako diru laguntza ematen dietenei.

Ondoren, 18:30etan, Olentzeroren etorrera izanen da, Guraso Elkarteak eta Gaztetxeak antolatuta. Ongi-etorria Txino auzoan egingen zaio eta herritik bueltatzea eman ondoren,

goiko frontoiean egonen dira Olentzero eta Mari Domingi.

Presoen aldeko Olentzeroa

30 urtetik gora badira Goizuetan presoan aldeko Olentzeroa egiten dela eta aurten ere ez du hutsik egingen. 15:30-16:00ak aldera aterako dira, herri guztia kantuekin girotzeko asmoz. Iñigo Elizegi herriko presoak izanen dute bereziki gogoan. 10 urte daramatza preso. Urte zahar egunean, berriz, kontzentrazioa egingen dute.

Umeentzako tailerrak

Goizuetan eta Aranoko umeentzat jolas tailerrak izanen dira hilaren 29, 30 eta 31n (10:00-13:00). ●

ARANO // Gabonak

Oparien artean, Miaxiria ekarriko du Olentzerok Aranora

Asteazkenean, 09:00ak aldera aterako dira etxez etxe kantuan.

ARANON ere, hainbat ekintza antolatu dituzte Gabonen bueltan. Asteazkenean, Olentzeroren etorrera iragarri, kantuan ibiliko dira etxez etxe. Goizeko 09:00ak aldera aterako dira eta ondoren, elkarrekin bazkalduko dute San Roke elkartearen. Zozketak ere egingen dituzte. Alde batetik, etxeetan emandako gauzak zozketatuko

dituzte umeen artean. Eta bestetik, Gabonetako saski eder bat zozketatuko dute aportazioa egindako etxeen artean. Aurtengo Miaxiria aldizkaria ere atera berri da eta Olentzeroren oparien artean izanen da etxeetan.

Erakusketa eta umeentzat tailerrak

Aranon eta Goizuetako umeentzat jolas tailerrak izanen dira. Aranon, hilaren 30ean. Erakusketa bat ere antolatu dute eskolako umeek egindako lanekin eta Gabonetan zehar egonen da Kontsejun. ●

IRRINTZI TABERNA

Piriboa, rozoak, pitor konbinatuak, bokarok, plizak, hantugasak, tartak onkarguz (Ebara errealak ere bai) Suizidea 10:00etatik 23:00ak arte.

Ereñotzu Batera, 3 - 2008 HERNANI
Tel. 943 630 821 Mob. 656 374 258
www.facebook.com/irrintzitalerna - www.facebook.com/irrintzitalerna

AMAIA

OKINDEGIA - GOZOTEGIA

Amaia Uitzu Anton

Zorionak eta urte berri on!!

Kale Nagusia - GOIZUETA 948 51 42 42

YGALDE TXO
Jatetxea

Eguberri On!

menuak eta babarrun jateak

Ereñotzu auzoa
20120 Hernani (Gipuzkoa)
Teli: 943 55 02 40

OXEGUARDA
JATETXEA

Goizuetako Kale Nagusian

Eskerririk asko gurera hurbildu zaretenoi

2015 urte oparoa opa dizuegu guztioi

Abenduaren 31n, urte zahar guzuek ofariak zerbitzatuko ditugu
Enkargatzeko: 629 76 85 34

ASTIGARRAGA // Gabonak

Izaera solidarioa izango du gaurko Gabon kontzertuak, Astigarragan

Astigarragako elizan izango da 18:00etan hasita. Sarrera gisa, janaria edo materiala eraman behar da, Saharako errefuxiatu kanpamendura bidaltzeko.

ASTIGARRAGAN, Gabon giroan erabat murgilduko dira gaur. Izan ere, Gabonetako kontzertua eskainiko dute Udalak, Aiztondo abesbatzak, Astigarragako Herri eskolak eta Norberto Almandoz musika eskolak. Bere garaian, Aiztondo abesbatzaren Gabonetako kontzertuaren testigua hartu zuen kontzertu honek eta arratsaldeko 18:00etatik aurrera izango da Andre Maria elizan.

Sahararen alde, janari bilketa

Izaera solidarioa eman nahi izan diote aurten kontzertuari eta Saharako errefuxiatu kanpamendurako lehengaiak bilduko dituzte bertan. Hori horrela, lehengaiekin "ordaindu" behar da kontzertuko sarrera. Arroza, pasta, lekaleak, konpresak, atuna eta azukrea dira ekimen solidario honetan bildu behar direnak, besteak beste. Azaldu dutenez, lehengai hauetakoren bat ekarri ezin dezaketen herritarrek ere izango dute sartzeko aukera, eta kontzertuan bertan, produktu horien baliokide diren txartelak izango dituzte salgai Gaztelekuko gazteek.

Horrez gain, Saharatik etorritako herritar batzuek bertako tea eskainiko diete kontzertura hurbiltzen diren herritarrei.



Herri Eskola, Musika Eskola eta Aiztondo abesbatzako kideek abestuko dute gaur.

Argazkia: Lauri Matias.

Olentzero, haurren gutunak jasotzera

Asteazkenean, arratsaldeko 17:30etan iritsiko da Olentzero Astigarragara. Santiomenditik jaitsiko da Foru plazara eta han, udaletxeko balkoitik goxokiak botako ditu. Ondoren, Joseba Barandiaran plazara joango da haurren gutunak jasotzera. Gutunak bakarrik ez, muxuak ere gustora asko hartuko ditu!

Egitarau berezia, Gaztelekuan

Gabonetan zehar, egitarau berezia antolatu dute Gaztelekuan: abenduak 22, Gabonetako oparia; abenduak 23, eskalada; abenduak 24 eta 25, itxita; abenduak 26, sorpresa; abenduak 27, euskeraren aldeko lasterketa; abenduak 28, Inuxente Eguna (11:00-14:00); abenduak 29, itxita; abenduak 30, urte zahar festa; abenduak 31 eta urtarrilak 1, itxita; urtarrilak 2, zinera; urtarrilak 3, txokolate museora; eta urtarrilak 4, futbito txapelketa.

Umeentzako aisialdia, Gabonetan

Umeentzako hainbat ekintza ere izango dira Egu-berritako oporraldian. Astelehenetik aurrera hasiko dira denak: Joko Aretoa kultur etxean, 9-12 urtekoentzat (11:00-13:00 eta 16:00-18:30); Ludoteka eskolan, 4-12 urtekoentzat (10:00-13:00); eta Jolas Txiki kiroldegian, 2-5 urtekoentzat (08:30-13:00).

Udal eraikinak, itxita

Gabonak tarteko, Udal eraikinak itxita egongo dira. Udaletxea eta kultur etxea egun hauetan egongo dira itxita: abenduak 24, 25, 26, 31 eta urtarrilak 1, 5 eta 6. Kiroldegia, berriz, abenduaren 24tik urtarrilaren 1era egongo da itxita eta urtarrilaren 6an ere bai. Epe horretan, Hernaniko kiroldegia erabiltzeko aukera izango da. Bestalde, aldaketak izango dira paper eta kartoi bilketan, abenduaren 25 eta 26an. Informazio gehiago, asteazkeneko alean. ●

KUPELA TABERNA

Gabon jai zoriontsuak opa dizkizuegu eta urte berri on!

TOMAS ALBA II, BERRA, ASTIGARRAGA. 943 55 230

EZPELA NATUR DENDA

Itxita zoriontsuak opa dizkizuegu!

Nagusia, 9 Astigarraga. 943 33 11 47

Rafa Garaikoetxea
Mediku-Udentologia
Kolegiatu, Zerbakoa 415

Clínica Dental ASTIGARRAGA
Hortz Klinika

JAI ZORIONTSUAK OPA DIZKIZUEGU!

Peletari 17, behea Astigarraga. 943 33 00 89 / 698 68 68 17

KUPELA TABERNA

Gabon zoriontsuak eta urte berri on!

Nagusia 32, ASTIGARRAGA 943 55 49 89 | ikatzataberna@gmail.com

HARATEGIA ARTOARENE URDAITEGIA

Gabon jai zoriontsuak eta urte berri on!

Peletari kalea, 21. ASTIGARRAGA 943 33 22 15

Zipotza

Urteberri 10n

JUAN LUIS EXKERRA ETXERA

NOW

ISABEL

Janari denda

COVIRAN

Zerionak eta urte berri on!

Tomas Alba II, Astigarraga 943 55 23 67



"BERRIAK"
HERNANIKO MERKATARIEN
ETA DSTALARIEN ELKARTEA

HERNANIKO
kronika

**GABONETAKO
ZOKKETA
2014**

Egin zure erosketak Hernanin!
HERNANI BIZIRIK!

AURTENGO ZENBAKI SARITUAK

1. SASKIA

0540

Non saldua: Ikusi Makusi

Jaione Kongelatuak Iberiko sorta
Bitartean "Bidean" CDa
Alaia Hertz Klinika Aho garbiketa
Goiz Argi 2 pertsonentzako afaria
Antziola Okindegia Errege roscoa
Portalondo Agenda eta larruzko portadokumentosa
Kaixo Umentzako motxila
Oihala Fanelazko ohe jokoa
Frutas Ezkerro Fruta saskia
Txili Taberna Ardo kaja
Joxe Mari Taberna 6 Kriantza botila San Pedro

2. SASKIA

0009

Non saldua: Ikusi Makusi

Jaione Kongelatuak 2kg langostino
Bitartean "Bidean" CDa
Biokbi Optika Eguzkitako betaurrekoak
Antziola Okindegia Errege roscoa
Irigoiien Oinetakoak Oihalezko zapatilak
Leokadisti Liburudenda Liburu bat
Ikusi Makusi Merienda poltsa
Urbietak Kopiak Bulego materiala
Kaixo Maleta bat
Adarraga Gozotegia Ardo kaja
Guria Taberna Arnegi Kriantza ardo kaja

3. SASKIA

0170

Non saldua: Dorronsoro Okindegia

Jaione Kongelatuak Iberiko sorta
Bitartean "Bidean" CDa
Errioguarda Jatetxea 2 pertsonentzako otordua
Antziola Okindegia Errege roscoa
Balantxa Liburudenda Haur jokoa
Hoki Lentzeria Neska pijama
Aitor Peña Olio bidoia
Marife Arrandegia Langostino kaja
Urumea Burdindegia 2 kristalezko bandeja
Aralar Taberna 6 botila ardo "Chardonnay de Nekeas"
Oindi Taberna "Viñadores Artesanos" 12 botilako kaja

4. SASKIA

0183

Non saldua: Dorronsoro Okindegia

Jaione Kongelatuak 2kg langostino
Bitartean "Bidean" CDa
Marna Poltsa bat, fular bat eta belarritakoak
Antziola Okindegia Errege roscoa
Urrats Oinetakoak Etxeko zapatila pareak
Galerias Buen Precio Puff bat
Aitor Peña Jaboi kaja
Ibai Mendi Asics markako korrika egiteko riñonera-botila
Urumea Burdindegia Kafe jokua
Zintzarri Taberna 3 botila Magnum Viña Alkorta
Guria Taberna Bermut Izagirre 2 botila

28 GAZTEREN AURKAKO EPAIKETA

«Torturapean egindako deklarazioak besterik ez dauzkate»

Julen Zuaznabar eta beste 27 gazteren aurkako epaiketa atzo bukatu zen. Torturak eta epaiketaren izaera politikoa salatu zituzten.

HIRU hilabeteren ostean, atzo bukatu zen 28 gazteren aurkako epaiketa, Espainiako Auzitegi Nazionalean. Segiko kide izatea leporatuta epaitu dituzte; tartean, Julen Zuaznabar astigartarra. Defentsako abokatuek absoluzioa eskatu zuten auzipetu guztientzat eta bukatzeko, auzipetuek hitza hartzeko aukera izan zuten; tentsio momentuak izan zirela azaldu dio Kronikari Zuaznabarrek. Torturak eta epaiketaren izaera politikoa salatu zituzten eta Murillo epaileak hitza ukatu zien azkenean. Epaiketa buka-

tuta, momentuz, pakea izango dela azaldu du astigartarrak eta pozik ere azaldu da 12 gazteri akusazioa erretiratu diela-ko fiskaltzak.

«Zirko bat izan da»

Epaietaren balorazioa ere egin du: «Torturapean lortutako deklarazioak besterik ez dauzkate eta oso ebidenteak ziren kasuetan, fiskaltzak erretiratu egin behar izan ditu akusazioak. Bestalde, Estanbuleko protokoloa deslegitimizatzen saiatu dira. Gure militantzia politikogatik epaitu gaituzte,

torturapean ateratako deklarazioak dira eta ez daukate zilegitasunik gu epaitzeko. Epaiketa osoan mareatu egin gaituzte, gainera. Gurekin jolastu dute. Balorazioa, zirko bat izan dela».

«Loteria da»

12ri karguak erretiratu dizkiete eta gainerako 16ak epaiaren zain geratu dira. Seina urteko espetxe zigorra eskatzen diete. Loteria bat dela azaldu du Zuaznabarrek: «Ezin da jakin zer gertatu daitekeen. Zer gertatu beharko lukeen? Hori bai, argi dugu, absoluzioa».

ESKU PELOTA

Olarra gaur, Iruran

Gipuzkoako Triinkete Txapelketan, Egoitz Olarrak Behar Zanako Imanol Arrutiren aurka jokatu du gaur, 14:15etan Iruran (6. partidua). Oier Gurutzealde, berriz, 40-23 irabazi zion ostegunean, Hernaniko Ioritz San Sebastiani. ||

PRESO ETA IHESLARIAK

Kontzentrazioa, etzi

Kontzentrazioa deitu dute astelehenean Preso eta iheslariak kale-

ra lelopean. 20:00etan izango da, Joseba Barandiaran plazan. ||

GAZTE ASANBLADA

Selekzioaren partidua ikustera

Gazte Asanbladak irteera antolatuko du Bilbora, abenduaren 28an, Euskal Selekzioaren eta Catalunyaaren arteko partidua ikustera joateko. Zerrenda Zipotzan dago eta bihar da apuntatzeko azken eguna. Autobusa eta sarrera, 15 euro; autobusa, 8 euro. ||

TXIRRINDULARITZA

Bosgarren jardunaldia, gaur

Gipuzkoako Challengeko bosgarren jardunaldia jokatu da gaur 16:00etatik aurrera, Belodromoan. Bertan izango dira Donosti Berri taldeko txirrindulari astigartarrak: Gorka Urkiola jubenila eta Tomas Otermin eta Urko Semperena kadeteak. Urkiola laugarren postuan dago eta Semperena hirugarrenean. Gipuzkoako Kopan ere emaitza onak lortu zituzten. ||

HERRI LASTERKETA

Euskeraren aldeko lasterketa, gaur zortzi

Euskaraz bizi nahi dut! eta Inuxente Eguneko lasterketa antolatu dute datorren larunbatean, Kirol Sailak eta Mundarrok. Bi lasterketa izango dira, adinaren arabera. 16:30etan, 0-5, 6-11 eta 12-16 urtekoek izango dute parte hartzeko aukera. 17:30etatik aurrera, berriz, nagusien txanda izango da, hau da, 17 urtetik gorakoena. 6 km egin beharko dituzte, euskeraren alde. Izen ematea 16:00etatik aurrera izango da. Prezioa: 5 euro. ||

FUTBOLA

Puntu bila Lezora, gaur

Mundarrok Allerruren aurka jokatu du gaur. Plazetan izango da 16:00etatik aurrera. Punturen bat lortu beharra daukate beheko postuetatik urruntzeko lehenbailehen. ||

SASKIBALOA

Euskal Ligako neskek eta probintziales etxean jokatu dute gaur

Mundarro-La Salleko hiru talde nagusiek gaur jokatu dute eta neskek eta probintziales, Astigarragan. Neskek, Askartza izango dute aurrez aurre (16:00) eta probintziales, DKS (18:00). Euskal Ligako mutilek, berriz, Leioan jokatu dute bertako taldearen aurka (18:30). ||

KIROLA - ASTEBURUKO PARTIDUAK

FUTBOLA			
Ereag. Preferentzia	Alema/Mundarro	Plazetan	Gaur 16:00
Ohoreko jubenila	Peska/Mundarro	Don Boscon	Gaur 17:30
1go jubenila	Lino Santo Tomas/Mundarro	Berri	Bihar 09:00
Ohoreko kadetea	Tolosa/Mundarro	Urdulain	Gaur 17:30
1go kadetea	Mundarro/Amara Berri	Zarkumendi	Gaur 09:30
Ohoreko infantil	Mundarro/Vasconia	Zarkumendi	Gaur 13:15
1go infantil	Jesuitas/Mundarro	Auton	Bihar 10:30
Infantil berriz	Mundarro/Dunboa	Zarkumendi	Gaur 11:30
SASKIBALOA			
2. E. Liga neskek	Mundarro-La Salle/Askartza	Askartza	Gaur 16:00
2. E. Liga mutilek	Leioa/Mundarro-La Salle	Leioan	Gaur 18:30
Gipuzkoako 1go m.	Mundarro-La Salle/DKS	Astigarragan	Gaur 18:00
Kadete mutilek	Olatzango sakelariak/Mundarro-La Salle	Donostia	Gaur 12:15
Kadete neskek	Internazional/Mundarro-La Salle	Harroan	Gaur 10:30
ESKU PELOTA - Gipuzkoako Triinkete Txapelketa			
1go maila	Egoitz Olarrak/Behar Zano	Iruko triinketa	Gaur 14:15



GOXATU NEGUA

39'95 €

ERRAUTS XURGATZAILEA 1200 W.



Egurrezko sukalde, barbakoa, pelleteko estufa eta estufa amuntentzat aproposa. Kautzoko filtera. 20 litroko metalezko kubeta. 4.30 kg-ko pisua.

245'00 €

EGURREZKO ESTUFA MOD. LENAV BERTIKALA



Aitzaluzko teapa funtzioa oinarrian. Bero potentzia 8.5 kW. 125 mm-ko ke iteera. Pisua 57 kg.

1895'00 €

EGUR SUKALDEA MOD. LIS-7.



Urutako burdinez egindako egur sukaldia, labarekin eta esmaltatua. 150 mm-ko ke iteera. Bero potentzia 10.80 Kw. Pisua 200 kg.

995'00 €

PELLETEZKO ESTUFA MOD. STAR 8.



Kronotermostatodun estufa. Bero potentzia 8 Kw. Ke iteera 80 mm. Pisua 80 kg.

149'00 €

KANPOALDEKO ESTUFA, BELTZEZ PINTATUA.



Kanpoaldeko gas estufa, irautzen kontrako sistemarekin, potentzia erregulagarria eta piztutze piezoelektronikoa. Potentzia 14 Kw. Alt. 2.295 mm. Pisua 25 kg.

29'95 €

OLIO ERRADIADOREA "MINI"



3 posizio: 800, 1.200 eta 2.500 W. Gurpilak baditu. Termostato erregulagarria temperatura berdin mantentzeko. Itzen aurkako funtzioa. Gehiegi berotu ez dadin segurtate sistema.

Argitaratzailea: Dobera Euskara Elkarte. Erredakzioa, argazkiak eta publizitatea: A. Arbelaitz, E. Zeberio, B. Los Arcos, K. Garmendia, L. Goñi, M. Ramirez de Alda eta A. Moreno. Egoitza: Laramendi 11(Hernani), Santio Zeharra 8, Kirolegia (Astigarraga). ☎ 943 33 08 99 (Hernani) eta 688 660 714 (Astigarraga). Eposta: kronika@kronika.net, astigarraga@kronika.net, urumea@kronika.net eta publi@kronika.net. Lege gordailua: SS-400/2014 ISSN: 2341-2976

TELEFONOAK ●TAXIAK: 943 550093 (Hernani) 943 55 52 77 (Astigarraga) ●UDALTZAINGOA: 092 ●DYA: 943 464622
●AUTOBUSAK: Garayar: 943 556658, Areizaga: 943 452708, Korreoa Goizueta-Hernani: 948 514037
●ANBULATORIOA: 943 006666 - 943 203020 (Hernani) 943 33 56 44 (Astigarraga) ●JOKALARI / ALKOHOLIKO ANONIMOAK: 943 331103
●FARMAZIAK ●Egunez: Aguado Nagusia, 21 943 550327 (Astigarraga) ●Gauz: Aizpuru Latsunbeberri 11 943 336077 (Hernani)

EGURALDIA ●GAUR Zerua lainotuta egongo da eta tarteka euria egingo du, bereziki, kostatik gertu. Hegoaldera ez da tantarik iritsiko. Tenperaturak behera egingo du pixka bat. Min.7°/Max.12°
●BIHAR Ekialdeko haizeak lainoak aldenitu araziko ditu eta eguzkia izango da jaun eta jabe. Hala ere, temperatura freskoa izango da. Min.5°/max.13° (euskalmet)



ARANO

Udaletxea itxita, ostegunean

Datozen ostegunak Eguberri eta Urte Berri egunak direnez, udaletxea itxita egonen da. Egun horien ordez, abenduaren 29an (astelehena) egonen da irekia arratsaldez, herritarrentzat. Plenoa ere egun berean egingen da. ||

Lanpostu propioa sortzeko, laguntza

Arano, Cederna-Garalur elkartearen kide da orain eta Udalak jakinarazi du autoenplegua sortzeko laguntza zerbitzua dagoela. Lanpostu propio bat sortu nahi duenari, honako laguntza emanen diote: ideia aztertzen, proiektua

garatzen, enpresa sortzen edo jarduera sendotzen. Harremanetarako: 600 435 953 edo mendialdea@cederna.es. ||

GOIZUETA

Olaizola binakakoan gaur, Labriten

Lau T'erdiko Txapelketan azpitxapeldun geratu ostean (22-17 galdu zuen finala Irujoren aurka igandean), Binakako Txapelketari ekinen dio gaur Aimar Olaizolak. Beroizekin osatu du bikotea eta Berasaluze II-Zubietaren aurka jokatu dute gaur, Labriten 17:30etan. Hurrengo partidua ostegunean izanen dute, Eibarren (17:00). Retegi Bi-Rezustaren kontra neurtuko dira. ||

Jon Apezetxea Eibarren, bihar

Jon Apezetxeak Eibarreko jaialdian jokatu du bihar. Urruzolarekin ariko da Gorka eta Larrinagaren kontra. 17:00etan hasita, hirugarren partidua izanen da. ||

Apezetxea anaiak finalean, gaur

Pilotan, Umore Onako Joanes eta Beñat Apezetxea anaiak Napar Jokoetako finala jokatu dute gaur, alebin 3garren mailan. Lizarran izanen da 09:30etatik aurrera (4. partida). Lagunak taldearen aurka jokatu dute. Bihar, berriz, lau t'erdian banaka ariko dira: Beñat Apezetxea benjaminetan neurtuko da Irribarriaren aurka.

Eta kadeteetan, Antton Apezetxeak Olidenean aurka jokatu du. 09:30etatik aurrera izanen dira Lizarran. Iker Salaberria goizueta-rrak eta Mariezkurrenak ere bihar jokatu dute Villabonan, Oteiza eta Etxeberriaren aurka (10:30). ||

Zubiriren partidua gaur, Galarretan

Aritz Zubirik Galarretako erremonte jaialdian jokatu du gaur (16:00). Lehenengo partidua izanen da. Seguiolarekin jokatu du, Otaegi eta Aizpuru Illaren aurka. ||

IRAGARKI MERKEAK

Baratzen ibiltzeko Rotatora behar dut. Bigarren eskuko erosiko nuke. Deitu: 688 665 045
Alokatzeko hiru gelako etxebizitza behar dugu. Deitu: 618 120 340

Sukaldaria behar dugu jatetxe batean, esperientziarekin. Urtarilean hasteko. Deitu: 600 668 957

3 gela alokagai Hernaniko erdigunean. Deitu: 633 609 244

15 m2ko garaje itxia salgai Mañe y Flaquer 4 zenbakian. Kobxa eta motorra sartzeko nahiko leku dago. 22,000 € negoziagarriak. Deitu: 638 784 065 (Carol)

ETXEKO KONPONKETAK egiten dira; iturgintza, elektrizitatea, pintura, berogailuak, persianak... Seriotasuna. Deitu: 616 886 660.

Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, akupuntura, ajuste neurologiko eta bertebra, reflexologia, aurikuloterapia,... 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)



LEHEN FASEAREN ERAIKUNTZA HASI DA.

Itur mendi

Goza ezazu Hernanin naturaz inguratuta eta ondo komunikatuta dagoen auzo berri batez. Etxebizitza argitsuak, terraza handi eta bista ikusgarriekin.

etxe onenak URKILLA S.L.

INFORMAZIOA ETA SALMENTA: www.etxeonenak.com
943 42 95 21

FINANTZIAZIOA:

"la Caixa"